

- Zer doia zuretzat 'Lómiñoneko' etxe horretan?

Esan zoskuenian oiñ urte batzuk bota bihar ebela, "ene, hemen dakat dana eta!" esaten neban. Oiñ desiatzen, zaharra ikusten dot, duintasuna be galduta. Tokau jata etxe barrixa, lan barrixa... neretako barriro hastia da dana.

- Lan barri hori?

Mendaron erizain. Udararte aitxitekikin-eta ein dot biharra Egunekeo Zentruan, zabaldu zanetik, oiñ zazpi urte. Gustura eurekin, baiña azkenian burua pixkat nekatu eitzen da. Aldatzeko aukeria euki dot eta ondo be bai. Dana dala, barriro deitxu ezkerro, juango nintzake.

- Zer da biharrezkua eda deko pertsonekin egoteko?

Pazientzia, eta entzuten eta kariñua emoten jakitzia. Goxotasunakin atendidu bihar dozuz, pertsona moduan tratau eta ez gaixo legez. Medikoki gauza posturalak ikasten dira, erasorik ez eitzeko eurei edo norberari. Baiña beste aldia, humanuaua, hori norberangan dago.

- Zaharren egoitza barrixa doiala entzun dogu.

Guri ez doskue esan, baiña entzunda dakagu Zubiondo zanekean erresidenzia zabaltzeko asmua dauala eta haren barruan Egunekeo Zentrua.



Elizparian jaixo eta, hiru urte zitxuanetik, egunotan botatzekotan diran 'Lómiñoneko' etxian bizi izandakua da 48 urteko andrazko hau.

- Inguruan dakazuzen miña edo gaixotasuna, zelan eruaten dozuz?

Hasieran arazo guztixak etxera eruaten nitxuzan eta bateron bat sufritzen ikusi ezkerro ezin neban burutik kendu. Enpatia haundixa dakat, errez jartzen naz bestiaren lekuan. Oiñ, hurrintzen be

ikasi dot.

- Eta zahartze kontuak?

Oiñ arte ondo. Tximur batek urten dostala eta ez naz estutzen danetakua. Zahar eitzia etorri biharreko gauzia dala ikusi dot, nere biharrek erakutsitxa.

- Hasarre batek, Eli, luzaruan irauten dotsu?

Ez, hori be ikasi eitzen da. Gaztetan muzturrekin egon neikian pare bat egun, hiru... ikasi dot txandapasa ein bihar dala eta aurrera! Oin dakadaz prontuak; bota biharrekuak bota eta bare-bare gero.

- Egunkarixari, nundik heltzen dotsazu?

Atzetik, D. Celesetik, barrere eitzeko apur baten; gero gaiñontzekuak, ze ez dabe ekartzen ganorazkorik ezebez.

- Plazerretako bat?

Itsaso baztarrian pasiatzia eta masaje bat hartzia.

- Abioia hartu eta nora juango ziñake?

Etxetik urtetzia kosta eitzen jata, baiña nora juan? Australiara, Sydneyra.

- Basarrixa edo hirixa?

Basarrixa asteburupasa bat eitzeko, gehixao ez. Eta gero herrira, derrigor.

- Kirola, eitzeko edo ikusteko?

Sasoi baten gehixao eitzen neban, pizinarra, pasiatzera... Eta duda barik ziklismua ikusteko.

- Seme-alabei sarrixen akordau eraindako gauzia?

Errespetua ez deixiela iñori faltau.

- Konformatze erretzekua?

Bai. Gauza larregirik ez dot eskatzen: bizi norbera eta bizi izaten laga.

Estibalitz González

E L I Y A R Z A

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGaña

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

ALBOKA

MUSIKA ESKOLA

- Akordeoia	- Klarinetea
- Biolina	- Panderoa
- Biolontxelo	- Perkusioa
- Bonbardino	- Pianoa
- Flauta	- Saxofoia
- Kantua	- Trikitrixa
- Gitarra	- Tronboia
- Gitarra elektrikoa	- Tronpeta
- Gitarra baxua	- Txistua
- Lengoia musikala	

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com